

KONFIGURAZIO EURO-MODULARRA

Abenduaren 18ko PRE/2788/2015 Aginduak abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren (aurrerantzean IEO) IX. eranskina aldatzen du; eta horren bidez, "konfigurazio euro-modularren" (aurrerantzean EMS) definizioa sartzten da.

EMS horiei zirkulazio-baimenak eman ahal izango zaizkie, baldin eta gehienez 72 tonako masa eta 32 metroko luzera badaukate, eta parametro horiek ezin dira inola ere gainditu.

Konfigurazio euro-modularreko ibilgailu-taldeari, abian duen ordenan, zirkulazio-baimen berezia emango zaio, baldin eta IEOn IX. eranskineko 1. ataleko 1.23 puntuko definizioarekin bat badator. Horrek esan nahi du ibilgailu-taldea 6 ardatz-lerro baino gehiagokoa dela eta modulu bakoitzak bere aldetik ez dituela gainditzeko eranskin horretan kasuan kasuko ibilgailu motarako ezarritako gehieneko masen eta neurrien mugak.

Beraz, konfigurazio euro-modularra honelakoa izango da:

- a) Ibilgailu-talde bat, osagai hauek dituen: "ibilgailu artikulatu bat eta atoi bat" edo "errepide-tren bat eta atoi bat"
- b) Ibilgailu-taldeak 6 ardatz baino gehiago izan behar ditu.
- c) Konfigurazioaren modulu bakoitzak ezin ditu IX. eranskinean kasuan kasuko ibilgailu motarako ezarritako masak eta neurriak gainditu.